

M.U.k beste unibertsitate batzuen interesa sortu du Mendeberrri hezkuntza proiektuarekin

2007/11/13

Mendeberrri hezkuntza proiektuaren garapenarekin, Mondragon Unibertsitateak aurrera jarraitzen du Europako espaziora egokitzeko helburuan, eta aurten dagoeneko gradu eskaintzaren %80ra iritsi da. Mendeberrri proiektua zuzenean lotzen zaio konbergentzia europarreko prozesuari, gizartearen benetako beharrei egokitzen eta erantzuten dien prestakuntzaren bidez, horixe baita Europako sistema unibertsitarioak landuko dituen erronka estrategikoetakoa.

Azken urteotan, hainbat hezkuntza zentrok jaso dute Mendeberrri hezkuntza ereduaren berri. Esaterako, Mondragon Unibertsitateko kideek 20 hitzaldi eman dituzte Estatuko hainbat lekutan egindako biltzar eta jardunaldietan, horien artean Deustuko Unibertsitatean, Gironako Unibertsitatean edo Bartzelonan "Unibertsitateko irakaskuntza eta berrikuntza" aztertzeko egindako Nazioarteko Biltzarrean.

Halaber, MUko kideek Euskal Herriko, Estatuko eta baita nazioarteko argitalpenetan ere zabaldu diren 7 artikulua idatzi dituzte. Gainera, 2007. urtean, Mondragon Unibertsitateak Mendeberrri ereduari buruzko bi liburu argitaratu ditu.

2004az geroztik, Mondragon Unibertsitateko kideek 14 ikastaro eman dituzte hainbat unibertsitatean Mendeberrri hezkuntza proiektua azaltzeko, eta horien artean daude Madrilgo Europako Unibertsitatea, Murtziako Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta hainbat unibertsitate latinamerikar.

Horrez gain, hainbat unibertsitateko ordezkariak Mondragon Unibertsitatea bisitatu dute Mendeberrri ereduaren garapena bertatik bertara ezagutzeko. Eta, prestakuntzaren alorrean, MUk bere hezkuntza ereduari buruzko nazioarteko bi jardunaldi antolatu ditu: horietako lehena, 'Goi mailako hezkuntza Europako konbergentziarantz: ikaskuntzan oinarritutako ereduak' izenburuarekin, eta bestea 'The Project Oriented Problem Based Learning'. (el título no sé como es exactamente) izenburuarekin.

Mendeberrri proiektua

Mendeberrri proiektuaren bidez, Mondragon Unibertsitateak enpresetan eta erakundeetan gertatzen ari diren beharrei eta aldaketei erantzuten die, horiek hezkuntzaren kontzeptua errotik aldatzeko eskatzen ari baitira. Eredu honen xedea pertsonak heztea da, bere konpetentzia pertsonal, sozial eta profesionalen bidez, lan arloko erronka berriei erantzun ahal izan diezaieten; prestakuntza bere gain hartzeko gai diren pertsonak, lan taldean aritzeko, proiektuak gidatzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gai diren pertsonak.

Finean, proiektuak esan nahi du, ezagutzaren transmisioan eta irakaslearen protagonismoan oinarritzen den irakaskuntzaren eredu klasikotik, ikaslearen autonomia eta beste gaitasun batzuen garapena sustatzen duen eredu batera igarotzea. Ikaslearen parte hartzea bultzatuko duen eredu, lankidetzat, erantzukizunak hartzea bultzatuko duena; funtsean, ardaztat komunikazioa izango duen eta ikasleak eragile proaktibo bilakatuko duen eredu.

Oro har, Mendeberrriren helburua ezagutzak, konpetentziak eta balioak garatzea da. Hiru hizkuntzatan ematen da, hau da, ikasleak amaieran bere jarduerak gutxienez euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez garatzeko gaitasun handia lortu behar du, eta informazio eta komunikazioaren teknologia berrien ondorioz sortzen diren aukerak ahalik eta gehien



aprobetxatu.

Gaur egun Mondragon Unibertsitateak graduko eskaintzaren %80an ezarrita du Mendeberrri proiektua, eta 2008an guztiz hedatuta izatea espero du. Gaurko egunez Mondragon Unibertsitateko irakasleen %75 hezkuntza eredu hau diseinatu, garatu eta ezartzeko prestatzen ari da.